

# DORTOKAREN BEGIRADA

---

JON  
ARRETXE



erein



# DORTOKAREN BEGIRADA

26

---

uzta gorria

Obra honen edozein erreprodukzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, [www.conlicencia.com](http://www.conlicencia.com); 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

*Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren diru-laguntza jaso du.*

*1. argitalpena: 2021eko azaroan*

Saila eta azalaren diseinua:

Cristina Fernández

Maketazioa:

Erein

© Jan Arretxe

© EREIN. Donostia 2021

ISBN: 978-84-9109-743-3

L. G.: D 1320-2021

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300

[erein@erein.eus](mailto:erein@erein.eus)

[www.erein.eus](http://www.erein.eus)    

Inprimatzailea: Itxaropena, S. A.

Araba kalea, 45. 20800 Zarautz

T 943 835 008

[itxaropena@itxaropena.net](mailto:itxaropena@itxaropena.net)

[www.itxaropena.net](http://www.itxaropena.net)

# DORTOKAREN BEGIRADA

JON  
ARRETXE

erein



## OSTIRALA



### 1

—Damutu zaitetze, bekatariok, damutu!!!

Hiruzpalau aldiz errepikatu du aldarria predikari bibotedunak, sutsu, besoak jasoz. Alboan erabat zuriz jantzitako andre bat dauka, kartel bat eskuetan: «Badator Azken Judizioaren eguna, presta zaitetz!». Erabat beltzez jantzitako beste andre bat ere haiekin dago, harenga grabatzen sake-lako telefono batekin. Hirurak mozkote samarrak dira, latino hazpegikoak, eta irribarre lerdoa daukate ezpainen-tan. Nola liteke munduaren amaiera iragartzea zorionsu itxura horrekin? Zer arraio dauka jende horrek buruan?

Garrasi bakoitzaren ondoren pausa laburra egiten du predikariak, norbaiten erantzunaren zain bezala, baina inork ez dio jaramonik egiten. Entzun ere nekez entzuten zaio, albo-alboan egon ezik, Vallecasko Zubiaren inguruko trafikoa astuna eta zaratatsua baita.

—Damutu zaitez zu ere! —Neuri tinko begira bota du azken oihua predikariak, eta beltzezko andreak ni nagoen alderantz zuzendu du sakelakoa. Bizkarra eman diet atoa, eta errepidea zeharkatzen hasi naiz semaforoa berde jarri arte itxaron gabe, autoei iskin eginez, gidarien klaxon-jotze eta biraoen artean. Beste aldeko espalaira heldu eta martxa bizkortu dut, hirukote flipatua madarikatuz. Luze barik Igeldo kalearen bidegurutzeraino ailegatu naiz.

Karrika luze horretan sartu aurretik gelditu, biseraren punta jaitsi eta maskara ahalik eta gehien zabaldu dut nire aurpegian. Koronabirusaren kontrako txertaketa masiboa gertatu zenetik, gero eta jende gutxiagok erabiltzen du musukoa, baina niri primeran datorkit, aukera ematen baitit Mahamoud Toure gaizkile papergabea izan beharrean, Madrilen bizi diren milaka afrikarretako bat izateko, beltz arrunt eta anonimo bat.

Etorkinek irekitako negozio zenbakaitzen artetik pasatzen naizen bitartean, seguritate-kamera berri bati erreparatu diot. Hemezortzi jarri omen dituzte Igeldo kalean, Bilboko San Frantziskon bezalatsu eta, ezinbestean, han bizi izan nintzeneko gomutak etorri zaizkit gogora. Garai latza izan zen, San Frantziskon kamerak kontrolatzen zituen zakurrak izugarri izorratu baininduen, izain odol-hurruptaile erauztezina bilakatu zen arte. Hartaz libratzea beste aukerarik ez nuen izan, eta ekin-tza haren ondorioz, Bilbotik ospa egin behar izan nuen.



Nafar Pirinioetako herrixka bat izan zen nire ezkutalekua, baina han ere ezin izan nuen bakerik aurkitu eta askoz urrunago ihes egin beharra suertatu zitzaidan, Parisera.

Afrikarrez betetako Barbès auzoan lasai eta salbu sentitu nintzen hasieran, eta patrikak goraino bete nituen nire lapur-ogibide berriari esker. Baina han ere gauzak konplikatatu zitzaizkidan, eta oraingoan Madrilerara ekarri nau halabeharrak.

Hiri hau ere egokia da niretzat, inoren arreta erakarri gabe lasai ibiltzeko aukera ematen dit eta. Hemen ere milaka eta milaka etorkin bizi dira, auzo batzuetan gehien-go izateraino, eta horietako asko beltzak dira. Hauen bilgune bilakatu den Lavapiés auzoan daukat apartamentua. Niretzat bakarrik alokatu nuen, Parisko lapurreten emaitzei esker batere estutasun ekonomikorik gabe nengoela aprobetxatuz.

Baina oparotasun hori, esku-diruari dagokionez, behintzat, agortzen joan da. Batetik, kezka handirik gabe gastatu dudalako sosa, etorkizunean pentsatu barik, eta bestetik Burkina Fason jarraitzen duen familiari dirutza bidali diodalako. Emazteak dendatxo bat muntatu nahi omen du, ez dakit azkenean horrelakorik egingo duen, baina orain oso pozik dagoela dirudi, hain pozik ez baitit jada galdetzen noiz itzuliko naizen etxera, ezta bera eta umeak hona noiz ekarriko ditudan ere. Pentsa liteke ni gabe bizitzen ohitu direla eta ez da harritzekoa, gure herritik abiatu nintzenetik urte mordera igaro da eta.

Tronboi desafinatu baten hots zoliak eten dit hausnarketa. Atso-agurez osatutako txaranga baten partaidea da eta hor dihardute denek, Gorbea kaleko bulebarraren hasieran, vallecstarren belarriak zigortzen. Badirudi ez daukatela beste zereginik, hona etorri naizen gehienetan hortxe ikusi baititut, baina hainbesteko praktikak ez die fruiturik eman.

Pausoa bizkortu dut eta txarangaren noten oihartzuna galtzarekin batera iritsi naiz helmugara. Errepidez bestaldeko hormara so egin dut, hortxe kokatu dute kamera berrietako bat, eta horrek susmo txarra eragin dit. Hala ere, sartu egin naiz ile-apaindegian. Ez dago bezerorik.

—Betikoa? —galdetu dit ile-apaintzaile saharar txikiak.

—Betikoa.

Aulkian eseri, bisera eta maskara kendu eta morroiak, nire bizkarrean oihal bat zabaldu ondoren, mozteko makina hartu eta lan-plantak egiten hasi da nire kizkurrekin.

—Ez zaizkit batere gustatzen kamera berri horiek —esan diot—, batez ere honantz zuzen apuntatzen duena.

—Igeldo kaleko bizilagun zintzoak seguruago sentitzen dira orain, antza.

—Badago inor zintzoa hemen?

—Ni neu, adibidez. Azaldu nizun Adel izenaren esanahia, ezta?

—Bai, «gizon zuzen eta ondradua», definizio ezin hobeaz zuretzat.

—Horixe!

—Dena dela, kamerek kezkatu egiten naute. Batek daki, agian mikrofono eta guzti izango dute

—Zer uste duzu, Toure —Une batez itzali egin du makina—, tramankulu horiek kaleko atea zeharkatu eta gure elkarrizketa harrapatuko dutela?

—Ez fidatu, gauza arraragoak ikusi ditut eta.

Adelek CD bat hartu eta sahararren banderaren azpian dagoen musika-aparatuan sartu du. Azalean Mariem Hassan jartzen duela ohartu naiz. Berehala, gitarra baten notak aditzen hasi dira, gero txaloak, eta azkenik, emakume baten ahotsa, doinu alai bat kantatzen hasi dena.

—Lasaiago honela? —galdetu dit ile-apaintzaileak, eta nik sorbaldak jaso ditut.

Hamar bat minutu pasatu dugu itxurak egiten. Adeli, Espainia eta Marokoren artean egon diren azken iskanbilen harira, bere herriaren egoeraz galdetu diot, eta eragindako garagardo-litrona bati tapoia bat-batean kentzea bezalakoa izan da. Madarikazioka hasi da sahararra, Marokoko agintarien kontra lehenik, eta Espainiako gobernuaren kontra gero, Frantziaren kontra, Estatu Batuen kontra...

—Herrialde aberatsei Mendebaldeko Sahara game-lu gorotz bat adina inporta zaie! —bota du, amaitzeko.

—Mendebaldeko Sahara bakarrik ez, Afrika guztia  
—erantsi dut nik.

Adel apur bat baretu da. Lepoko oihala kendu  
dit, astindu eta, ispilura begira onespén keinua egin  
ondoren, dendosteko mahaira eraman nau. Poltsikoan  
nekarren eraztun distiratsua luzatu diot, berak lupa mo-  
duko bat hartu eta aztertzen hasi da.

—Zafiro hauek ez dira hain-hain perfektuak.

—Niri ez eman azalpenik, badakizu ez daukadala  
ideiarik ere.

—Eskerrak tratugile zintzo batekin topo egin du-  
zun.

—Eskerrak.

Harrizka urdinez apaindutako zilar-eraztuna az-  
tertzen jarraitu du sahararrak eta, besterik erantsi gabe,  
mahaiko tiradera bat zabaldu eta kutxa baten gorde du.  
Gero beste tiradera bat ireki, berrogeita hamar euroko  
billete sorta bat atera eta eman egin dit. Zenbatu gabe  
gorde dut dirua poltsiko baten eta lepoko bat atera dut  
bestetik, harri gorritz apaindua.

—Ona da? —galdetu diot.

—Nik esango nuke baietz. Hori ere saldu nahi di-  
dazu?

—Ez, bakarrik jakin nahi dut ea kalitate onekoa den.

—Errubi horiek oso itxura ona daukate. Horren  
truke gehiago emango nizuke... Ziurrenik bi mila in-  
guru, baina aztertu beharko nuke. —Eskua luzatu du.

Idunekoa barik bostekoa eman diot.

—Hau ez dago salgai —erantsi dut eta, lepokoa gorde ondoren, kalerantz abiatu naiz.

—Nahi duzunean itzuli. Atsegin handiz lagunduko dizut altxor misteriotsu horretaz libratzen.

—Ilea apur bat luzatutakoan.

—Egunen baten kontatu beharko didazu nondik atera duzun.

—Egunen baten.

Bisera eta maskara berriz jantzi eta Igeldo kalera irten naiz. Kamerari so egin gabe hartu dut bueltako bidea.

Parisko bitxi-dendetan ostu nuen jeneroa kolokatzten laguntzen dit Adel txikiak. Bitxiek merkatuan balio lezaketenaren erdia ordaintzen dit esku-dirutan eta kito, denok pozik. Fidatzen naiz hartaz, morroiak zintzoa dirudielako eta, batez ere, irtenbide hoberik ez daukadalako.

Jubilatuen sasi txarangak hor dihardu oraindik, jo eta ke. Euren adineko hainbat entzule daude inguruko jarleku eta petriletan, etxegabe ugarirekin tartekaturik. Zaharrek euren txaloekin musikaren erritmoa daramate, modu negargarrian eraman ere, eta etxegabeek antzeko zehaztasunaz jasotzen dituzte garagardo-latak edo ardo-kutxak, denak oso gustura daudela dirudi. Eta predikuan ari ziren hiru hegoamerikarrak ere haiengandik gertu daude, bazter baten eserita atsedean hartzen, irriño madarikatua oraindik ezpainenan. Albotik igarotzean bibotedunak keinua

egin dit, bi atzamarrez garaipenaren uvea edo eratuz. Pikutara bidali dut, hortz artean marmarka.

Igeldo kaletik Vallecasko etorbide nagusira irteerakoan, ia harrapatu nau ero itxurako arlote batek, burdina uhertuz gainezka daraman supermerkatuko gurdiarekin. Espaloitik deseroso doanez, errepidean sartu da, auto-gidarien haserre eta errietei muzin eginez.

M-30 azpiko metro sarrerarantz jarraitu dut eta zubipeko eremu libreari erreparatu diot: kanpinak, koltxoiak, mantak, kartoioak... Hainbat etxebakoren bizileku bihurtu da toki hau, eta ni, Parisko lapurreten emaitzengatik izan ez balitz, haiek bezala egongo nintzela bururatu zait. Horrelako etorkizunik nahi ez badut, gastuak kontrolatu eta luzatu egin beharko dut nire altxorraren bizitza.

Metro sarrerako eskaileretan behera abiatu eta berehala oihu batzuk entzun ditut. Ustezko lapur bat dago lurrean etzanda, segurtasun-enpresa baten uniformeja janzten duen katxalote baten azpian. Honen kolega bat dago ondoan zutik, emakume argal bat, izu aurpegia daukana.

—Ez mugitzeko esan dizut! —diotso potoloak lapurrari, bere tonekin zapalduz eskuturra bihurritzen dion bitartean—. Hara, hementxe dago polizia.

Une horretan bi morroi ailegatu dira korrika, kaleko arropaz jantzita, eta burdinak atera dituzte.

—Min handia daukat, jefe —kexatu da lapurra, baina zakartasunez lotu dizkiote eskuturrak.

Haiengandik urrundu naiz disimuluz, bihotz-taupaden bizkortzea sentituz. Poliziaren bat inguruan ikusten dudanean asaldatu egiten naiz, ezin dut ekidin, nahiz eta orain arte, Madrilen, haiekin inolako arazorik izan ez. Ea honela jarraitzen dudan luzaro.

Erlojuari begiratu eta kilikadura sentitu dut. Sasoiz ailegatuko naiz Chamartingo geltokira. Bilboko trenak ekarriko didan oparia jasotzeko irrikaz nago.